

Asko erabiltzen da "pila (bat)" aditz baten graduatzaile edo indartzaile moduan: **pila maite zaitut**, **pila bat gustatzen zait**, **pila bat aspertu gara**, **pila kostatzen zaio...** Zuzena da erabilera hori?

Gure ustez, lagunarteko erregistro informaletan, bai.

1/ Egia da da *pila/pilo (bat)*, berez, kopuru-adberbio modura erabiltzen den izen-sintagma dela:

Jende-pila bat elkartu zen = Jende asko elkartu zen

Baina maila-adberbio izatera ere lerratzen da, espresibitatearen beharraz, ahozko erregistroetan:

Lan-piloa/pila (bat) egin dut = Lan handia egin dut / Lan ikaragarria egin dut gaur

Gauza bera gertatzen da euskaraz *pixka bat* kopuru-adberbioarekin:

Euskara pixka bat arroztua du.
Ni neu aspertu naiz pixka bat.
Pixka bat haserretu zen gurekin.

Halakoetan, kopurua baino gehiago maila adierazten da.

2/ Euskaltzaindiaren Hiztegian, hauxe agertzen da begiratuz gero:

pila¹

1 iz. **Gauzak elkarren gainean edo ondoan ipinita egiten den multzoa, bereziki inolako antolamendurik gabea.** Ik. **pilo**; **meta**. *Edozein belar pila ez da meta, ezta han-hemendiko idazlan sorta ere aldizkaria. Harri pila bat. Pila bat egin eta su ematea. Baserritar kaiku pila handia dago gizontxoari begira. Hizkuntza ez dela handik eta hemendik bilduriko gai pila, aitzitik sistema bat, bere egitura duen sistema. Pilan hartu eta eraman zituen. Pilan jarri.*

2 iz. **Kopuru handia.** *Kilometro pila bat egin genuen. Hura ume pila!*

Orotariko Euskal Hiztegian ere ez da agertzen adberbio/graduatzaille moduko adibiderik.

Hala ere, gaur egun, lagunarteko ahozko hizkeran, barra-barra erabiltzen da:

Pila bat gustatzen zaizkit beldurrezko filmak.
Pila bat kostatu zaio, baina ikasi du gidatzen.

Seguruena, espresibitatearen mesedetan sortu da erabilera hori (eta, akaso, gaztelaniazko *un montón*-en eta euskarazko *pixka bat*-en gainean eraikia), eta, auskalo noiz arte iraungo duen gure artean modismo horrek.

Beste hizkuntza batzuetan ere, antzekoak sortu dira (eta sortzen dira behin eta berriro), eta, kasu batzuetan, forma estandarrena bilakatu:

I like it *a lot /so bad*.

Mi piace *un sacco*.

Me gusta *un montón / mazo, mogollón*

Je l'aime *beaucoup* (= kolpe eder bat!)